

Errepublikatua

Inon eskelarik agertu ez bada ere, azkenak eman ditu Artelekuk; inor ohartu ez bada, aspalditik hiltorian zegoelako izan daiteke, seguruenera. Orain beste zerbait izanen da, Tabakaleraren bihotza, proiektuaren motorra, baina ez da gehiago Arteleku izanen. Nostalgjarik ez, ordea. Ezer ez da izaten alferrik, eta beti geratzen da zerbait. Ahanzturak hartuko ditu eremu hauek egunen batean, baina bitartean, akaso baliagarri zaizkigu oraindik hemen egindako hainbat eta hainbat hausnarketa. Jende on asko pasa da bertatik, eta jende on askok idatzi du Zehar aldizkarian.

Iraganean aztarrika aritzea izan daiteke etorkizuna eraikitzen hasteko modu bat. Eta horretan saiatu gara ale honetan, iluna argitara ekartzen. Artikulu interesgarri askoak zeuden hor, gordean, hautsak hartuta, eguzkiaren argia noiz ikusiko zain, eta berriro publikatzea erabaki dugu.

Ariketa politikoa da, nahi baduzu, hautaketaren oinarrian dagoen kezka ere politikoa baita. Publikoaren kontzeptua bera da gaur egun jokoan dagoena, eta ez bakarrik kulturaren esparruan. Zertan dira gaur parte hartzeko moduak? Esfera publiko eta kritiko baten ideia bera da gainbehera etorri dena, eta eraldatzen ari dena etengabe. Kezka horri buruzko testuei plaza bat eskaini nahi genien, berriro ere, hartara hobeto ikus dadin joandako denboretatik hona zer aldatu den, eta zer ez den aldatu hainbeste.

Kaleak ere aldatu egin dira, eta plazak, zer esanik ez. Gaur plazak ez dira lehengoak, urte gutxian asko aldatu da jendearen bizimodua, domestikoagoak gara orain, eta domestikatuagoak ere bai, seguru asko.

Plazen argazkiak egiteko eskatu diogu **Gari Garaialderi**, eta haiek historia bat erakusten dute, egunero begien aurrean izan arren argazkitan desberdin ikusten dena.

Res publica hura, zertan da orain?

Republicado

Aunque no se ha publicado su esquila, Arteleku ha llegado a su fin. Lo ha hecho de manera desapercibida, probablemente, por haber sido larga su agonía. Ahora, Arteleku devendrá en otra cosa, en corazón del proyecto Tabakalera, y no será más Arteleku. Pero sacudámonos la nostalgia, pues nada sucede en vano y todo deja huella. Muchas de las reflexiones de Arteleku nos seguirán siendo útiles, tal vez hasta el día en el que el olvido cubra ese espacio que tan buena gente ha acogido, tanto en el propio Centro como a través de la revista Zehar.

Pensamos que rebuscar en el pasado puede ser una buena manera de empezar a construir el futuro y, por ello, en este número hemos pretendido sacar de la oscuridad una serie de interesantes artículos para que vuelvan a brillar bajo la luz del día, como brillaron en algún momento de la historia de Arteleku.

Se trata de un ejercicio político, si se quiere, en la medida en la que el propio criterio selectivo ha sido político, pero lo cierto es que lo que hoy está realmente en juego es el propio concepto de lo público; y no solo en el ámbito de la cultura. ¿Qué es hoy de las formas de participación? Es la idea misma de una esfera pública y crítica la que está hoy cuestionada y en permanente transformación. Por tanto, hemos querido recuperar y exponer en la plaza pública textos que inciden en esta preocupación, de manera que podamos advertir qué cosas han cambiado y cuáles no tanto.

Las calles también han cambiado en estos años; y las plazas, cómo no, ya no son lo que eran. En pocos años, han cambiado mucho los hábitos y modos de vida de la ciudadanía. Ahora somos más domésticos, y seguro que estamos también más domesticados.

Hemos pedido a **Gari Garaialde** que fotografíe las plazas, para que reparemos de una manera diferente, a través de ellas, en una historia que vemos todos los días.

¿Qué es hoy de aquella *res publica*?